



ELEKTRODORIK GABEKO TAUPADA-MARKAGAILUA INPLANTATZEARI BURUZKO INFORMAZIO-ORRIA

Taupada-markagailuak bihotz-erritmoa erregulatzen duten gailu elektronikoak dira. Erritmo-nahasmenduak dituzten pertsonekin erabiltzen dira, eta ezarri ondoren bizitza normala izatea ahalbidetzen dute.

Kasu batzuetan, kablerik gabe erabil daitezke. Horrela, ohiko taupada-markagailua (kableduna) infektatzeko arriskua saihesten da, eta konplikazio larri ohikoena da.

Zertan datza?

Kasu gehienetan, anestesia lokala erabiltzen da (eremua soilik lokartzen da) eta sedazioa (oso erlaxatuta egongo zara, ia lo) aldi berean, prozedura erosoagoa izan dadin. Horregatik, prozeduraren aurretik anestesioologo batek baloratuko zaitu.

Ebakuntzaren aurretik, iztaia soilduko da, beharrezkoa bada (etxean zuk zeuk egin dezakezu, etorri aurretik).

Taupada-markagailu hori ziztada baten bidez ipintzen da iztaian (zain femorala), eskuinekoan normalean. Hortik kateter bat sartzen da (hodi fina), taupada-markagailua barruan duena, bihotzeraino.

Nola prestatu behar dut inplantea jarri aurretik?

Beharrezkoa da proba baino gutxienez 6 ordu lehenago ezer ez jatea eta ez edatea. Gosariko ohiko medikazioa har dezakezu, ur pixka bat edanez.

Antikoagulatzaileak hartzen badituzu (tronboak edo koaguluak sortzea saihesten duen medikamentua), mediku-taldeak egun horietan nola hartu azalduko zizun.

Diabetesa baduzu, bete jarraibide hauek:

- Aurreko gauean: hartu ohiko medikazioa.
- Prozeduraren egunean: ez hartu diabetesaren aurkako pilularik gosarian.
- Ez jarri INTSULINA AZKARRIK prozedura baino lehen.
- Goizean intsulina erabiltzen baduzu, prozeduraren ONDOREN jarri.

Hortzordeak eta/edo audifonoak badituzu, kendu egin beharko dituzu harrera-solairuan sartzen zaren unean.

Nora jo behar dut ebakuntzaren egunean?

Joan zaitez Txagorritxuko Ospitaleko onarpen-zerbitzura. Beheko solairuan dago, sarreraren ondoan.

Handik, harrera-unitatera lagunduko dizute.

Nola egingo didate prozedura?

Ospitalizazio-unitatera iristean:

- Harreran ohe-atorra bat emango dizute, eta jantzi egin beharko duzu. Azpiko arropa eta objektu pertsonalak kentzea gomendatzen dizugu.
- Erizainak zain bide bat (kateter fin bat) jarriko dizu, lasaiago eta erlaxatuago egoteko behar dituzun sendagaiak emateko. Iododun kontrastea (X izpiekin ikusten den likidoa) erabil daiteke elektrodoak zainetatik bihotzeraino gidatzeko.



Prozedura nola egiten den:

- Ohatilan etzango zaituzte, eta beharrezkoa denean soilik desestaltiko dizute gorputza.
- Prozedura osoan monitorizatuko zaituzte, hauen bidez:
 - Pegatina batzuk (elektrodoak), prozedura osoan, bihotzaren jardueraren erregistroa (elektrokardiograma) ikusteko.
 - Tentsio arteriala hartzeko mahuka bat.
 - Batzuetan, saturimetro bat atzamarrean, oxigeno-maila neurtzeko.
- Izara esteril txiki batez estaltuko zaituzte, eta eskuineko izaia soilik utziko da agerian.
- Anestesia lokala emango zaizu eremuan, prozedura mingarria izan ez dadin.

Prozedurak 45 eta 60 minutu artean irauten du, gutxi gorabehera.

Zer egin behar dut probaren ondoren?

Ebakuntzaren ondoren ospitaleratuta egongo zara. Ezingo duzu jan prozedura amaitzen denetik 2 ordu igaro arte.

Prozedura amaitu eta hurrengo 6-8 orduetan eskuineko hanka erabat geldirik eduki beharko duzu.

Etxean, jarraitu ziztada-eremua zaintzeari buruz emango dizkizuten gomendioak (ziztada iztaian).

Alta jasotzean, hitzorduak emango dizkizute:

- Estimulazio- eta arritmia-kontsultako erizainarekin:
 - Zauri kirurgikoa berrikusteko.
 - Urrutiko monitorizazioak nola funtzionatzen duen azaltzeko (onartu baduzu).
- Zure kardiologoarekin. datozen hilabeteetan, desfibriladorearen funtzionamendua kontrolatzeko.

KARDIOLOGIAKO TALDEAK ZURE INTERBENTZIOAREN BIDEOA IKUSTEA PROPOSATZEN DIZU

1. KONEKTA ZAITEZ HEMEN:

<https://meduvipiberia.okast.tv>

Edo eskaneatu hurrengo QR kodea



2. IDENTIFIKA ZAITEZ HEMEN:

Helbide elektronikoa: cardio@txago.eus

Pasahitza: **Cardio 1009**

3. KONEKTATU BERRIRO zure telefonoaren KAMERA eta ESKANEATU zure EBAKUNTZARI dagokion bideoaren QR KODEA:



4. Zure **EBAKUNTZARI** dagokion bideoa berriro ikusi nahi duzun bakoitzean, azken **QR KODEA** eskaneatu besterik ez duzu egin behar.